



Sabina Eizmendi Garrok 100 urte bete ditu.- Oriatarra jaiotzez, larunbatean bete zituen 100 urte Sabina Eizmendi herritarra (erdian, berdez). Festa polita antolatu zuten Maria Fundazioaren Donostiako zentroan ahaide eta zaintzaileek. Alboan izan zituen alabak, bilobak eta birbilobak mendeurrena ospatzeko. Amalurren trikixta, txistu, danbolin eta pandero dinokue girotu zuten goiza eta agurra ere dantzatu zituen. Senideek iazera gogorreko emakumea dela aipimarratu dute. Bost urteekin ama hil zitzaion, bost anai-arrebetatik hirugarrena izan zen eta haurtzaro oparoa izan zuen Sabinak Basaundin baserrian bizi izan zen garaietan. Nerabezaroran Oriaran bertan irute fabrika batean egin zuen lan. 21 urteekin ezkondu zen Luis Goyaranekin eta handik gutxiira eduki zuen lehen alaba Pepi. Halere, Gerra Zibilari hasieran Luis senarra frontera joan zitzaion, horendorioz Sabinak Bartzelonara eta handik gutxiira Frantziara alde egin behar izan zuen erbestera, hila-bete gutxi zituena alaba eskuetan zuela. Gerra amaituta, Oriara itzuli eta senarrekin bat egin zuen bertan. Fabrikako lanera bueltatu eta Luis semea eduki zuten (duela bi urte zendua), goroxeago Marta iritsi zen, hirugarren eta azken alaba. Gerora, Oriatik Lasartera lekualdatu ziren senarrak Michelinen zuen lana medio eta esfortzuz handiarekin lortu zuten eguneroko ogia. 1992an hil zen Luis senarra eta duela gutxiira arte, 93 urte bete arte bere kabuz bizitzeko gai zen Sabina Eizmendi. Zorionak!

3 HEZKUNTZA

Agenda 21 ekimenean elikaduraz gogoeta

Lasarte-Oriako ikastetxeetan lehen hezkuntzako ikasleak Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen ari dira. Aurten "Elikaduraz jasagarria gure herrian" lelopean hainbat ekintza eta gogoeta burutzen ari dira. Hauek ikasurte amaieran udalbatzar berezian aurkeztuko dituzte.

4 KULTURA

Etzegabeteen auzia Manuel Lekunako aretoan

Gaur egun pil-pilean dabilen gaia jorratu zuen Lezoko Orraxte! antzerki amateur taldeak larunbat arratsaldean kultur-etxean. Etzegabeteen dramari umore ukitua eman zuten, etxejabe handi-mandien kudedeltasunari irudimena eta alaitasuna jarrita helburuak lor daitezkeela erakutsiz.



5 OSASUNA

Gripe izurritearen prebentzio aurrentzia

Urtarilean gogor jo zuen grippeak. Hedabideek hainbat heriotzen berri eman zuten. Hala ere, Lasarte-Orian halako ondorio larrik ez dugu izan oraingoz. Gaixotutako herritarrek asko izan dira eta Osasun zentrotik prebentzioa honetan ere garrantzitsua dela aipatu dute.

ALCAR BENTANAS

Zuregandik hurbil

10% beharspena gortineta 2,8 arte

PVC, aluminio eta zubi termokaaren haurlara, lan-tzen diratgu

- Zatiak
- Argiz
- Pintak
- Pintak
- Pintak
- Pintak
- Pintak
- Pintak
- Pintak
- Pintak
- Pintak
- Pintak
- Pintak
- Pintak
- Pintak

ALCAR BENTANAS

Lasarte-Oria, 2. Bulegoa

1151. zenbakia

Adituak dio



Irati Izquierdo
Arkitekto teknikoa

Krisi garaian eraikuntzan inbertitzea

Krisi garaian gaudela jakina da, honekin batera, nabari da gure herriko errepide eta eraikinen mantenua jaitsi egin dela; errepideetako asfalto zuloak ez dira betetzen eta eraikinek itxura zaharra mantentzen dute.

Baina, ba al zenekien gure etxebizitzia mantenturik gabe askoz ere garestiago zaigula? Eraikinen fatxadek energiaren kontsumoa murrizteko rol garrantzitsu bat jokatzeko dute. Isolamendua duen estalki eta fatxada egoki batekin energia, dirua eta CO2 isuria izugarri murriztu daiteke.

Adibidez, isolamendu egoki batekin, kalefazioaren fakturan 30% aurreztera iritsi gaitzeko, eta hasiera batean obraren kostua handia dirudien arren, 5 urtetan amortizatu dezakegun.

Eusko Jaurilaritzak alde batetik eta Lasarteko Udalak beste aldetik, beste herrietan ez bezala, Udalak nahikoa diru laguntza ematen ditu bizilagunok horrelako zaharberritzeetan dirua inbertitu dezagun.

Horrela, gure herriko eraikinak energetikoki eraginkorrak eta estetikoki itxurosoak bihurtzen ari dira. Esate baterako Kale Nagusiak azken urteetan jasan duen aldaketa nabarmena izan da.

Jakin ez dakit noiz arte izango ditugun diru laguntza hauek, baina aprobeitza ditzagun eta Lasarteko kaleak energetikoki eraginkorragoak bihurtzaz.

Zuloak

Bide, errepide, azpiegituren mantenu lanetan diru gutxiago gastatzen dute erakundeek. Krisi ekonomiko dela eta murriztu egin behar izan dira hainbat partida eta Udalateek neurritu nahi izan dituzte gastuak kale garbiketa edota konponketari dagokionez.

Lasarte-Oriako udalak bere aurrekontuak estutu ditu ere baina krisiari herritarrentan ahalik eta eragin txikiena izateko lan egiten duela esan du behin baino gehiagotan.

Hala ere, herritarren pertzepzioa da gauzak ez direla lehen bezala konpontzen, garbitzen edota ordezkatzen.

Errepide eta bideetako zuloak aipatzen dira. Hauek konpondu ezean kotxeak izorratu eta herritarri dagokiola, beti bezala, zaintza falta horren ondorioak ordaintzea. Bada garbiketaren soilik alde nabaritu duena edota argiterian iluna

delako orain herria. Orain aurrezteagatik ez badira konpontzen ez al zaigu luzera dexente garestiago aterako deniei?

Dena den, udalak duela hilabete batzuk egindako inkestan, herritarrek kezka hauek plazaratu zituzten eta zer hobetua batez ere herriko mantenua eta hainbat instalazioetan zegoela jaso zuten udal ordezariek.

Baina kalekoan ez ezik, norberak bere etxera begiratu beharko luke. Etxeko mantenua behar bezala egiten al dugu? Zenbait konponketen ondorioek herritarren poltsikoan eragin positiboa izan dezake. Adituki dionez, elektrizitatearen faktura hainbeste igo den honetan eraikinen fatxadek energiaren kontsumoa murrizteko ezinbestekoak dira besteak beste. Kalekoak zein etxeokoa mantenuan agian orain arte jarri ez den arreta jartzea dagokigu egoerak beharuta.

Hitz eta pitz

Konponketetan murrizketak egon direla uste duzu?



Marcelino Martín
Krisiak eragina duela iruditzen zait. Esaten dute ez dagola dirurik eta nolabait herritarrek konformatu behar gara dagoenarekin. Herrian badaude zonalde eta errepide batzuk aspaldi konponketa edo bukkunketa bat behar zutenak baina ez dira egiten. Azken asteetako euriteek bideetan kalteak eragin dituzte eta ikusi beharko da noiz iristen diren konponketak.



Manuel Patino
Bai, kalean entzuten da udalak, erakundeek orokorren, mantentimendu lan gutxiago egiten dituztela krisia dela eta. Hala izango da, murrizketak alor gutzietan ari dira egiten eta suposatzen dut zerbaitean nabaritu behar dugula herritarrok. Espaloi batzuetako zuloak edo baldosa mugituak aspalditik daude baina tiru gauza larriagoetan inbertitu beharko dute.



Victoria Manuel
Nire ustez ez dira gauzak berehala konpontzen eta zenbait gauza gaizki daudelaren inpresioa daukat. Ni Blas de Lezon bizi naiz, oraindik atzeko aldea konpondu dute baina argiteriarekin arazoak daude. Gure atari ondoko farola bat ez dabil bestea lekuz aldatu dute. Ereka pasealekuan farolak goiz itzaltzen dituzte. Laster linternekin atera beharko dugu kalera.



Marian Ruiz
Orokorrean konponketa falta baino zikinkeria nabaritu dut gehien herriko kaleetan. Egia da Askatasunaren parkean adibidez hainbat konponketa egiteko zuloak ireki eta denboran ikusi ditugula bukatu gabe. Hala ere, utzikeria sentsazioa da azkenaldian dudana. Zonalde batzuk oso zikinak daude eta hau ez da egun batetik bestera jasaten.



Terrestegi inguruan bidea moldatzen 1923an. GUREGIZUKOIA

Iruditan

Bideak

Irun eta Madril lotzen zituen bidearen lehenengo proiektua 1833ko uztailaren onartu zuten Gipuzkoako Batzarrek Oiarzun, Astigarraga, Hernani eta Urnietak proiektuaren aurkako jarrerak azalduta. Proiektua ekonomikoki errentagarria ez zela argudiatu zuten baina komunikabide nagusitik al gelditze beldurra izan zen arrazoia jaso denez. I. Karlistadak lanak eten eta 1845ean ekin zitzaion errepidea erakitzeari honi esker esan zuten Brunetarek Orián eraiki zutela euren lantegia. XX. mende hasieran oraindik Lasarte txikia zen eta bere bide nagusiak zuten soilik behar bezala garatuta.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Gipuzko Kultur eta Euskara Departamentua

Argitaratzailea:

Txatun Kultur Elkarte
Geltoki Kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txinbarri

Eredakzioa:

Nerea Ezpigitze, Maider Azumendi, Jon Altuna E.

txinbarri@txinbarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Antolo

publizitatea@txatun.com

administrazioa@txatun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maialu Arnaiz, Asier Odirozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informazioa:

Xabier Amador

INGURUMENA

Elikadura jasangarriaz eskoletan

Agenda 21 ekimenaren baitan lanean ari dira herriko eskolak



Ikasgeletan gaia lantzeaz gain, hainbat ekintza eta irteera egin dituzte ikasleek.

Lasarte-Oriako lehen hezkuntzako ikastetxeak Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen ari dira. Aurten "Elikadura jasangarria gure herrian" lelopean. Ikasturtea bukatzean, udalbatzar berezian ikasleek euren proposamenak udal ordezkariari helaraziko dizkiete.

TXINTXARRI

Nongo elikagaiak kontsumitzen ditugu? Non egiten ditugu gure erosketak? Nolako da gure dieta? Benetan pentsatzen al dugu zerbaitei aurreirik?... Hauek eta beste hainbat galderen inguruan ari dira hausnarketa eginen ikasturtean zehar Lasarte-Oriako neska-mutilak.

Eskolako Agenda 21 egitasmoaren bidez, Lehen Hezkuntzako ikasleak eskola eta herria jasangarritasune-

rantz bideratzen saiatzen ari dira. Helburua, eskola komunitate ingurugiroaren aldeko kontzientzia eta ohitura desberdinak bereganatzea da, herriar bezala parte-hartzea bultzatuz.

Programaren bultzatzailea Lasarte-Oriako Udala da, Artelatz Ingurugiro Zerbitzuak enpresaren laguntzarekin. Eta ez da lanketa honen lehenengoa.

Dagoeneko hainbat izan dira azken lau urteetan Agenda 21 ekimenaren baitan herriko eskoletan landu diren

gaiak. Joera sustatzaileek azaldu moduan, gai berdina bi urtetan jorratzea izan da honetan sakontzea bermatze-ko, hori dela eta "Ura" eta "Biodibertsitatea (naturala eta kulturala)" izan dira orain arte landutakoak.

Ikasturteko bigarren hiru-hileko honetan, ikastetxeak ekintza plana lantzen hasiak dira. Herri mailako partaidetza lantzeko, ekintza batzuk burutzen dituzte bai ikastetxean eta baita ikastetxetik kanpo ere, eta ondoren, lortutako emaitzekin, norberak bere egunerokotasunean bete beharreko hainbat konpromiso hartzeaz gain, ikusitako gabeziak konpontzeko proposamenak lantzeko diruzko Udalari. Hain zuten, ikasturte bukaeran alkatea eta beste udal ordezkariekin burutuko den batzar berezian.

DIAPORAMA

Nepal gertuagotik ezagutzeko aukera

Asteazkenean 21:30ean Jalgin egingo den Diaporama saioan Nepal ezagutzeko aukera izango da. Bertara egindako bidaiaz mintzatuko dira Ostadar mendi saileko kideak. Hilabeteko bidaia izan zen Himalayako herrialdean zehar egindakoa eta bertako mendi, paisaia, herri eta kulturaz hitz egingo dute.

Otsailaren 19an lexus Presa herriarrek Patagoniara egingo bidaia azalduko du eta otsailaren 26an, Alex Tetuan-en eskutik Korsika izango da hizpide. Saioen iraupena 40 minutukoa da eta ondoren solasdirako tartea uzten da. Antolatzaileek hauetara gerturatzeko gonbita luzatzen dute.

IPIUIN-KONTALARIA

Ipiuinetan murgiltzeko aukera

6 eta 8 urte bitarteko gaztetxoentzat ipuinaren ordua izango da bihar Manuel Lekuonan, 18:00etan. Lur Usabiagaren eskutik ipuin irakurketa antzeztuaz gozatu ahaliko dute.

Haur-liburutegian hilabetero bi saio izango dira ekaina bitartean, bata txikienei 3-5 urte artekoiei zuzenduta eta bestea biharkoa bezala, 6-8 urte artekoentzat.

UDALA

Ohiko udalbatzarra bihar

Hilabeteko bigarren asteartea izaki ohiko udalbatzarra izango da bihar 18:30ean. Honetan udala osatzen duten alderdiek hainbat gai eztabaidatu eta bozkatu beharko dituzte. Bestek beste, Udalean ospatuko diren ezkontza zibilen ordenantza bozkatu dute, Lasarte-Oriako babes publikoko etxebizitzaren erregimena arautzeko ordenantza indargabetu eta udaleko etxebizitza eskatzaileen erregiroa Etxebizidatu bildu eta erregimen iragankorra onartzea eta beste hainbat mozioen aurrean erabaki beharko dute.

"Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin bat" taldeak mozioa aurkeztu du, EAJK ere Arrapide ibilbidearen ingurukoak azalduko du eta Bilduk, sakabanaketa eta espertxe politikarekin amaitzeko eskaera lantzeko du beste mozio baten bitartez. Azken puntuan, galderak eta erreguen txanda izango da. Ohi bezala, udalbatzar irekia da eta herriarrek bertaratu daitezke.

ELKARTEAK

Semblante Rociorako prestaketetan

Nuestra Señora del Rocío ermandadeak atzo bazkaria egin zuen Semblante Andaluz elkartearen. Bertan Almontera egingo duen ohiko bidaiaz hitz egiteko parada izan zuten kofradeak.

14. urtea da Lasarte-Oriatik Rocío-rako peregrinazioan parte hartzeko bidaia antolatzen dela. Herriarrek han hainbat ekintza burutzen dituzte eta hauek lotzeko aitzakia izan zuten atzoko hitzordua. Bazkalostea, Amigos del Sur taldearen musikarekin girotu zuten.

Espetxe politika eta sakabanaketaren aurka

Arkaitz Bellon presoaren heriotza dela eta, Euskal Herriko hainbat eragilek herrietan espetxe eta sakabanaketa politikak salatzen mobilizazioak egiteko deialdia egin zuten ostegun ilun-terkerako.

Asteazkenean, Bellon bihotzkoak jota hil zela zabaldu zen. Elorriotarrak 13 urte zeramatzen kartzelan. Atxilotu zutenean torturatu egin zutela salatu zuten eta, ordukit, Puerto III, Sevilla, Herrera de la Mancha eta Puerto I kartzelelan egona zuten.

Kale eraso batean parte hartzea egotzita 13 urte eta 3

hilabeteko espetxe zigorra jarri zioten. Zigorraren bi herenak zein hiru laurdenak beteta zeuzkan arren, preso zegoen; zigorra ia osorik bete zuten, baina lehen gradu zutela oraindik salatu zuten Etxeretek.

Herrian manifestazioa

Lasarte-Oriako hainbat eragilek bat egin nahi izan zuten deialdiarekin eta ostegunean 19:30ean hasita, euriari eta haizeari aurre eginenez, hainbat herriarrek "Espetxe politika amaitu" eskaera sakabanaketa amaitu. Aski da" lelopean manifestazioa egin zuten.



Eguraldi txarrari aurre eginenez manifestazioa egin zen herriko kaleetan barrena.

Hainbat iturriren arabera, ehun lagunetik gora izan

ziren Okendon hasi eta herriko erdiguneko kaleetan

barrena burutu zen manifestazioan parte hartzen.

Etxegabetzeen auzia eskenatoki gainean

Bueltaka haur antzerkia izango da datorren larunbatean, kultur-etxean bertan

Gaur egun pil-pilean dabilen gaia jorratu zuen Lezoko Orratz! antzerki amateur taldeak larunbat arratsaldean kultur-etxean. Etxegabetzeen dramari umore ukitua eman nahi izan zioten, etxejabe handi-mandien krudel-tasunari irudimenarekin eta alaitasunarekin erantzunez helburuak lor daitezkeela erakutsiz. Denera 70 bat ikusle hurbildu ziren Lierni Fresnedok zuzendutako antzerkia ikustera. Momentuka barre-algarak entzun ziren aretoan nahiz eta gaia iluna zen izatez.

TXINTXARRI

Larunbat ilunabarrean antzeztutako "Kale Gorrian" Sergio Cabreras zuzendarik aurkeztu zuen "La Estrategia del Caracol" pelikularen moldaketa bat da.

Denera hamar bat aktore taulatu ziren eta eskenatokitik etxe kaleratzei buruzko istorio gordina kontatu zuen Lezoko Orratz! taldeak. Hori bai, ez zuten emandali triste eta iluna osatu nahi izan, kontrakoa, alaita eta koloretua izan zen, momenturen batean ikusleen barre-algarak sortzeraino.

Antzerkiaren muina gogorra zen berez. Etxejabe batek alokairuan dituen pertsonak etxetik botatzeko asmoa baitzuen etxea hiriko Gune Historikoko kultura-Ondasun izendatzea nahi zuelako.

Erabakiaren berri izatean eta abokatuekin hasitako bideak emaitzarik ematen ez zuela ikusita, nolabaitko defentsa prestatzen dute bizilagunek gizon dirudunak hel-

burua lor ez zezan.

Jendartearen puri-purian dagoen gaia da, errealitate beltzaren erakusle. Baina antzerkiak ikusleri erakutsi zion epaile eta polizien aurka erakina defendatuz eta estrategia bitxi bat antolatuz halako injustiziak ekiditea posible dela.

Bueltaka

Haurrentzako antzerki emandaldia izango da datorren larunbatean 18:00etatik aurrera Manuel Lekuona kultur-etxean. Behibi's taldearen "Bueltaka" euskarazko lanaz gozatu ahal izango dute herri-tarek.

Istorioko protagonistek porrot ugari jaso dituzte eta askotan aurkitu dira ihes egin beharrean. Beren lurretan petrolioa aurkitzen dutenean kanporatu egiten dituzte, hiri handi batera doaz eta kontsumismoak eta zorrek sosik gabe uzten dituzte... Baina, azkenerako, garaipen txiki bat lortuko dute, eta bizitza berri baten hasiera izango da.



Zirkuitu amateurra iznagatik, maila handiko antzerkia eskaini zuten Lezoko Orratz! taldeak 70 ikusleren aurrean.

Behibi's konpainia

Behibi's 1992an sortutako antzerki konpainia da. Kontsumoaren inguruko kanpaina egin ohi dituzte, zenbait Udalekin harremanetan, eta hainbat jaialdi eta antzerki azokatan parte hartu dute.

Ute luzez soilik haurrentzako emandaldiak egin osten, helduei zuzendutako antzerkia egiten hasi ziren iaz, "No es fácil" saioarekin.

Larunbaterako sarreraren prezioa 3 eurokoa izango da lehiatilan, eta 2,70 eurokoa www.lasarteorlasarean.eu webgunean aurrez erosiz gero.



Bueltaka antzerkia urrian egitekoa zen herrian.

Jantzi ekologikoen diseinatzaile trebeak Gazte klubean

Gazte Klubeako kideek ostiralean ekintza berezia burutu zuten Manuel Lekuona, "Papirodesfilea". Honean haien arropa diseinatzaile eta sortzaile teknikak trebatu ahal izan zituzten, baita birziklapena landu ere.

Sormena landu

Adibide gisa, begiraleek paperez egindako hainbat jantzi erakutsi zizkieten.

Hauek kontuan izanik gazte taldeek sortu behar zituzten jantziak eta hauek egiteko teknikak pentsatu behar izan zituzten.

Ostean, egunkariak, gurazeak eta soka eskuratu eta taldeko kide bat modelo bezala hartuta jantzia egin behar izan zuten.

Soinekoak, gonak, buruko zapiak, diademak, bitxiak... denetarik egin zituzten.



Ederki gozatu zuten gazteek paperezko jantziak egin eta desfilatzen.

Desfilea

Haien lanak erakutsi eta epaituak izateko aukera ere izan zuten taldeek.

Desfile ekologiko, dibertigarri eta marxosoa egin zuten Manuel Lekuonako areto nagusian eta gonbidatu berezi

batzuk egon ziren, Debora Mejide, Joxe Ramon baseritarra eta Poopy Flower.

Hauek epai berezi eta zorrotzak egin zituzten jantziei eta desfilatzeko moduari buruz. Irabazlea ere izendatu zuten, pirata jantzia.



Gripearean ondorio larririk ez gurean

Urtero biztanleriaren ehuneko handi bati eragiten dio. Prebentzioa beharrezkoa da.

Urtarrileko lehen asteetan, gripeak eragin handia izan zuten eta hildakoak izan zirela jakitera eman zuten hedabideek. Lasarte-Orian ere eragina izan zuten. Angel Gomez Osasun zentroko erizain buruarekin izan gara gripearri buruz gehiago jakiteko. Sintomak, nola aurre egin, arrisku taldeak, gripearean bertxoatza, hainbat izan dira jorratutako gaiak.

Nerea EIZAGIRRE

Gripea gaixotasun infekziosoa da, birus familia batzuk sortzen dutena. Gaixotasun infekziosoa sortzen dituzten birus asko daude, baina kasu honetan influenza familiako birusak dira. Tipo asko daude, orain A tipoko influenza da entzunena, "hone-lazaldutako" Angel Gomez erizainak.

Udazken eta neguan du eragin gehien gaixotasunak, "baina udaberri eta udan ere badago kasuena".

Munduko zonalek batzuetan gripe tipo batek besteak baino gehiago eragiten du eta gure artean A gripea da orain entzunena.

Urte hasieran gripeak gogor

eragin zuten. Osasun Zentroko erizainak adierazi legez, "800 kasu 100.000 biztanleko egon zirela irakurri dut, biztanleriaren 100etik batek gripea zuten. Kopurua "garrantzitsua da baina egoera larriagoak izan dira".

Hilabete honetan kasuak murrizten joan direla dio orain ez dago ia mugimendurik, "kasuena bat baina ez askorik".

Transmisioa

Aipatu digunez, ezin da jakin kutsadura noiz gertatu den. "Pertsona batek kutsatu ahal zaitu baina birusak atmosferan daude, beraz edonoz kutsatu ahal gara eta gripea oso kutsakorra da".

Transmisio mota ohikoena arnasbideak dira. Doministikuak oso arriskutsuak direla



Txertoaren kanpaina amaitu da. Baina oraindik osasun zentroan batzuk jartzen dituzte, errezeta eskatu eta erosi ondoren, noski.

aipatu digu. "Nahiz eta eskua jarri, norbaiti iritsi ahal zaizkio birusak".

Baina objektuak ere izan daitezke bidea. "Gure eskuek dutenarekin kutsatzen dira eta horregatik da garrantzitsua eskuek garbitzea. Erabilera komuna duten hainbat gauza ere, eskuoihalak, atzetako heldulekuak... kontutan hartu behar dira".

Sintomak

Gripearean sintomak ugariak izan daitezke, sukarrak, eztula, hotzikarak, gaizki egotea, gorputzean mina... "Koadro biral multiplea izaten da normalean gripea eta non kokatzen den garrantzitsua da sintoma batzuk edo besteak izango dituelako. Baina, gripea dela baieztatzen duen gauza bakarra sukara altua pairatzea da".

Izan ere, Angel Gomezek azaldu digunez, "beste birus batzuk ez dute hainbesteko sukara eragiten".

Gainera, gripe tipo desberdinetan oinarritako sintomak berdinak izan daitezkeela onartu du. Horregatik, gripea edo A gripea izanez gero, gomendio berdinak jarraitu behar dira.

Baina garapena desberdina izan daitekeela ohartarazi du, "koadroak txarrera egin behar du orduan ikeria diru desberdintasunak".

Eta larriki izanez gero, ospitalera joan eta betan zein gripe tipo den aztertuko da eta pertsona bakoitzaren araberako neurriak hartuko lirateke.

Prebentzioa

Gripea gai garrantzitsua dela ipatu du Osasun Zentroko erizainak, "Osasun zerbitzuari kezkatzen dion gaia da. Gaixotasun hau urtero ematen da eta

jende askori eragiten dio. Eta ondorio larriak izan ditzake. Nahiz eta gaixotasun normalizat hartu, duen garrantziaz kontziente izan behar gara".

Horregatik, arrisku taldeetan dauden pertsonetara jartzeko gomendatzen zaie beti.

Hala ere, gripearean txertoaren kanpaina amaitu da eta Gomezek aipatu digunez, ez da berriro zabalduko. "Jende asko dabil galdetza, baina ez da irrikiko. Txertoa jarri nahi duenak erosi eta Osasun zentroa etorri behar du bertan jartzera".

Kasu honetan, "jarri ez duela baieztatuta behar da lehenengo. Gero medikuekin hitz egin eta errezeta eskatu behar da. Baina esan behar da hau ez dagoela finantzatuta. Kontsulta telefonoz egin daiteke".

Eskaera hau telefonoz egin ahal dela aipatzen du "medikuari galdetu eta honek zure historiala begiratu esan ahal dizu txertoa behar duzun ala ez. Gainera, esan diezazukete arrisku talderen batean zauden edo ez".

Eta sukara altua ezean, gripearean sintomak badituzu telefonoz kontsulta egin daitekeela ere azpimarratzen du. Izan ere, "epidemia handia dagoenean, zentroan jende asko egotea zerbitzu ona eskaintzea zailtzen du".

Gomendioak

Osasun zentroa gripearrekin hurbilduz gero, hainbat gomendio eskaintzen dizkiete herritarrei. "Gomendioak etxekoak dira. Baina garrantzitsua da prebentzioa eta arriskua aurreikustea ere".

Lanera edo eskolara ez joatea gomendatzen da. "Hobeto egon arte etxetik ez iten. Gorputza estresatzen da eta okerrera izan daiteke. Deskantsatu behar da".

Ur asko edan behar da. "Ez da bakarrik gripearrekin galtzen den izerdia berreskuratzeko, ur freskoak gure gorputzeko tenperatura jaistea dakar eta hori ona da".

Tabakorik ez erre eta edari alkoholikoak ez edatea medikazioa hartzen baduzu.

Gripearri aurre egiteko paracetamol eta ibuprofenoa hartu behar da eta ez antibiotikorik. "Norbait oso gaizki baldin badago eman ahal dizkiogu, baina kasu oso larrietan infekzioa sahiesteko erabiltzen dira".

Mukiak ongi kentzea eta paperezko mukizapiak erabiltzea ere ideia ona da, "baina ez da asko erabili behar. Daudenazunaren araberaz erabili eta bota ere... argi dezakezu baina".

Honetaz gain, pertsona batek 38,5-39 graduko suka-

rra badu mediku batek aztertzea gomendatzen du erizainak.

Egoera honek garrantzia handiagoa du arrisku talde bateko pertsona bada. Adibide gisa, "persona adindua bada, baita 60-65 urtetik gorakoak ere. Defentsa mekanismoak murrizten dira adinarekin eta gripearri aurre egiteko".

Horregatik, arrisku taldean sartzen diren pertsonetara, 65 urte baino gehiago edo gaixotasun kronikoak duten pertsonak, haunduri edo hegaztiak hezten dituzten baserrietarrei txertoa jartzeko gomendatzen die.

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioa ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

IGERIKETA

Prestakuntza aurrera, markak hobetzen

Itziño Ibarburuk Espainiako Open txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu du

Azken hilabeteen Buruntzaldea IKT-ko igerilariek ez dute atsendenik izan. Errendimendu, zein Kirol zehaztasuneko liga jardunaldiak izan dituzte eta marka ugari hobetu dituzte. Itziño Ibarburu gaztea ere Euskal selkioarekin izan da Madriren lehiatzen.

TXINTXARRI

Buruntzaldea IKT-ko Itziño Ibarburu gaztea Madriren izan zen, otsailaren 1 eta 2an Euskal Selektioarekin Erkidego arteko Espainiako Txapelketan parte hartzen eta marka bikainak egin zituen.

Larunbata goizean 100 m. tximeleta proban, 5garren izan zen sailkapenean eta 2garren bere adinekoen artean. Gainera, Absolutu mailako Espainiako Open Txapelketarako txartela lortu zuen.

Arratsaldeko saioan, Itziño 100 m. libre proban eta 4x200 m. libre erreleuban parte hartu zuen. Proba individualen marka personal berria lortu zuen.

Igandeko jardunaldietan Itziño "gogor jarraitu zuen", bai proba individualen, baita erreleubean ere.

200 m. libre proban bere marka personala hausteko zorian izan zen. 4x100 m. libre erreleuban, hirugarren postuan atera zen Itziño eta marka ona egin zuen. "Zoritxarrez, errelebo hau taldeakidak azkarregi iriteagatik deskalifikatuta izan zen," azaldu

diagu Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Txapelketa amaitezko, arratsaldean 200 m. estiloak proban eta 4x100 m. estiloak erreleuban aritu zen Itziño. 200 estiloetan, marka personal berria egin zuen.

Errendimendu Liga

Urtarrilaren 25ean, errendimenduko 4. jardunaldia izan zen Ordizian.

Berban Buruntzaldea IKT-ko igerilaria Tolosaldea IKT-koen aurka lehiatu ziren.

Marka personalak hobeto zituzten igerileriek, nahiz eta "txapelketa azkarra eta gogorra izan zen".

Itsoa Tolosa 50 m. tximeleta proban Gipuzkoako sailkapen bateratuan bigarren izan zen eta 100 m. bizkar proban lehengo.

4x100 m. libre erreleuko postuan marka personala egin zuen Naiara Lizaso.

Nahia Iñe Villamediana hiru marka personal lortu zituen, 50 m. libre, 100 m. bizkar eta 100 m. estiloetan eta bigarren izan zen bizkar proban.

Jone Vazquez eta Janire Berasarteak 800 m. libreko



Errendimendu Ligako jardunaldian lehiatu ziren igerilaria.

BURUNTZALDEA IKT

marka personalak hobeto zituzten.

Haitz Mixelenak 50 m. eta 200 m. libre proban marka hobetu zituen.

Markarik gabe, baina Aina Garcia bular estiloko 100 m. eta 200 m. probetan Gipuzkoako sailkapen bateratuan lehengo izan zen.

Mikel Ensal, berriz lehengo izan zen 50 m. libre proban eta bigarren 50 m. tximeletan. Itziño Ibarburuk lehen postuan amaitu zuen 50 m. tximeleta proba eta bigarren izan zen 50 m. libre eta 200 m. libre probetan.

Kirol Zehaztasun Liga

Bestalde, urtarrilaren 18an, Kirol Zehaztasun Ligako bigarren jardunaldia izan zuten taldeko txikienek Hernanin.

Alebin mailan adinaren arabera distantzia desberdinak egin zituzten.

Lehen urteko alebinak 50 m. bizkar eta 200 m. libre probetan aritu ziren.

Bi probetan lehen postuetan izan ziren Buruntzaldea IKT-ko neskek. Bizkar proban Leire Martin lehengo, Aiora Casado bigarren, Ainhoa Martin hirugarren eta Nora Qian Villamediana laugarren izan ziren; 200 metroetan, aldiz, Leire eta Ainhoa Martin izan ziren lehen bi postuetan eta Aiora Casado hirugarren izan zen.

Mutiletan 200 libre proban Unai G. Somovilla lehengo izan zen eta Lander Azkarate zazpigarren izan zen bizkar proban.

100 m. bizkar eta 200 m. libre probak egin zituzten bigarren urteko alebinak.

Nesketan Irati Arzallus lehengo izan zen bizkar proban eta bigarren 200 metroetan; mutiletan Jon Soto bosgarren eta laugarren izan ziren.

Alebinak 4x50 m. tximeleta erreleuban Buruntzaldea IKT-ko 4 talde izan ziren. Nesketan, Irati Arzallus, Nerea Garcia, Ainhoa Martin eta Leire Martin-ek osatutako taldea nagusi izan zen; mutiletan, bigarren postua eskuratu zuten Jon Soto, Xabier Alonso, Unai G. Somovilla eta Lander Sorozabalek osatutako taldeak.

PILOTA

Intzako kadeteak sendo Udaberri Txapelketan

Udaberri Txapelketako laugarren jardunaldia jokatu zuten larunbatean Intzako II. mailako kadeteek Kirol Guneko pilotalekuan. Jagoba Mendizabal eta Jon Aranberik Intxurre 2 taldeko A. Zubeldia eta J. Oiarbide izan zituzten aurkari.

Nagusitasunez irabazi zuten herritarrek 22-9ko emaitza, izan sendo eta aurrean erabakigarri arituta. Tanto luzeak izan ziren batik bat, aurrean eta atzean joku orekatua erakutsi zuten Intzako pilotariek eta arierioa baino gehiago zirela erakutsi zuten. Jokotutako lau partidetatik hiru irabazita finalaurre-

koetan sartzeko aukera badutela uste du Solano prestatzaileak.

"Helburua herriarteko txapelketa prestatzea da, sasoiari iritsi nahi dugu maiatza aldeara", adierazi zuen Solanok.

Seniorrak aukerakin

Senior mailako bikotea ere Udaberri txapelketa jokotzen ari da. Partida bat irabazi du eta bestean arierioa ez zen agerto. Aste honetan ez zen partidatik jokatu. Finalerdietara sailkatzea dute helburu.

Trinkete txapelketa

Bestalde, jubenilak binakako



Jagoba Mendizabalek eta Jon Aranberirik partida serioa egin zuten larunbatean Michelingo pilotalekuan.

trinkete txapelketa ari dira jokotzen. Bi partida jokatu ostean, sailkapeneko bigarren postuan kokatuta dago herriko bikotea.

Solanek jakitera eman

digunez, hainbat taldek lehia eta utzi dute eta ondorioz ez da partida gehiagorik izango: "txapelketa eskasa geratu da", adierazi digu Intzako entrenatzaileak.

Ondorioz, finalerdietan da jubenilen bikotea. Hernanien aurka lehiatu beharko du finalerako txartela. Oraindik zehaztu gabe dago eguna eta ordua.

— Agenda —

Gaur, astelehena 10, 19:30ean, Manuel Lekuonan



Ur azpiko munduak ezagutzen

Urpeko zinema zikloaren saioa izango da. "Koralezko Itsasoa" filmean Australiako koral-hesia eta bertako fauna izango da ikusgai. Film labur hau euskaraz ikusi ahalgo da. "The Ocean Brothers" eta "Gosearen Legea" filmak ere ikusi ahalgo dira gaztelaniaz. Azken honetan itsaspeko animalien ehiza-teknikak azalduko dira.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Otsailen zehar
"El Estudio del pintor" akademiako ikasleen lanak ikusgai.

BAI Topaketa

VILLA MIRENTXUK
Larunbata 15, 10:00etan
BAI plataformako 1. Topaketen barruan, zabor bilketa aztertuko da. Jose Mari Puldinain herritarren ikuspegia jorratuko du eta Naxo Izeta eta Carlos Ormazabalak erakundeen ikuspegia.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 15, 18:00etan
Behibis taldeak "Buelbaka" haur antzerkia eskainiko du. Sarrerak internet bidez, 2,70 euro; leihatilan, 3 euro.

Ikastaroa

ELEBELTZ TOPAGUNA
Otsailak 12, 15 eta 19
Eneko Aranburu fisioterapeutak "Gorputzaren autogestioruntz, anatomia ikasketak" ikastaroa eskainiko du. Otsailako ostiralean arratsaldean Gitarrako ikastaroa eskainiko du Julen Basterrak.

Magia ikuskizuna

ZULO AËTIOA
Igandea 16, 19:00etatik aurrera
Rafaela magoak haurrei zuzendutako emanaldia eskainiko du. Aurretik, haurrentzako txokolatada izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 14, 22:00etan
Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "De tal padre tal hijo" filma ikusi ahalgo da. Sarrera, leihatilan, 4,70 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.
Igandea 16, 17:00etan
Haurren zinea atalean, "Futbolin" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz
Igandea 09, 19:30ean
Helduentzako zinea, atalean "De tal

padre tal hijo" komedia ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA HAUR LIBURUTEGIA
Asteartea 11, 18:00etan
6 eta 8 urte bitarteko gaztekoentzat ipuinaren ordua izango da.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Asteazkena 12, 18:00etan
"Aisia familien parte-hartzearekin erai-

kiz" hitzaldia izango da. Arrasateko Txatxilpuri elkarteak eta Oarsoaldeko Irriren lagunak taldeak haien esperientzia azaldu eta partekatuko dute.

Diaporamak

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Asteazkena 12, 21:30ean
Ostadar SKT-ko Mendi sailak Nepalera egindako bidaiak azalduko du. Mendia eta turismoa uztartuko dituzte haien aurkezpenen. Takunek antolatzen duen bidai diaporama saioen baruko ekintza.



— Herritarren txokoa —

Biyak Bat elkartean bidai

Biyak Bat elkartek Granada, Kordoba eta Sevillara bidaiak antolatzen du. Maiatzaren 26a eta ekainaren 4a bitartean izango da txangoa. Elkarteko kideek jakitera eman dutenez, Lasarte-Oriatik Zaragozara autobusez egingo da bidai eta Zaragozatik Sevillara, berriz, AVE-an. Izena ematea ireki da. Informazio gehiago eskuratu nahi duten herritarrek elkarteko bulegora hurbiltzea besterik ez dute, astelehenetik ostirala, 10:30tik 12:30ra.

Inauterietako taberna

Lasarte-Oriako Gazteria, Festak eta Kirolak departamentuak herriko irabazi asmorik gabeko elkartek eta entitateei eskaintzen die aukera Inauteri hauetan Okendo plazan jarioan den karparen barruko taberna kudeatzeko. Tabernetatik ateratuko etekinak bere osotasunean talde edo elkartearentzat izango dira. Interesa duten talde guztiak, otsailaren 15a baino lehen Udalebako erregistroan haien eskaria egin beharko dute.

Megaba elkartea kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkartek jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzea. Horretarako www.megaba.es weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian marxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa. Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratz, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barzak eta fruitak, gariak eta ekologikoak. Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalki dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidetan.

Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
tintxarri@tintxarri.info

— Sarean —

Zientzia eta teknologia informazio zure sakaletan

Euskarazko zientzia eta teknologia arloko informazioa behar duzu eta ez dakizu non aurkitu? Elhuyar Zientzia eta Teknologiarren Hiztegi Entziklopedikoa lagungarri egingo zaizu eta edonon behar duzula ere, hiztegia sakaletan eraman dezakezu, mugikorrerako aplikazioa eskuragarri baitago, Elhuyar ZTH Hiztegia.



Aplikazioa 50 jakintza-arlotako 23.000 kontzeptu inguru ditu. Honetaz gain, 607 artikuluko entziklopediko eta kontzeptuak hobeto ulertzeko 1.500 irudi ere eskaintzen ditu. Era honetara, erabilzaileak kontzeptuak, irudiak edo artikuluko entziklopedikoak bilatzeko aukera du. Kontsultak egiteko hitzak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez edo latinez idatz daitezke. Kontsultaren emaitzak sartutako hitzaren euskarazko definizioa buelatzen du, eta hitz horren ordainak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez ematen ditu. Elhuyarrek Android eta Apple mugikorretarako egindako aplikazioa da hau eta GooglePlay-n eskuragarri dago doan.

Eneko Barberena Txatxilipurdi

"Aisialdia tresna da gure herriak eraldatzeko"

Eneko Barberena Arrasateko Txatxilipurdiko aisialdi arduradunak argi dauka aisialdia tresna izan behar duela herriak eraldatu eta hobetzeko. Bere ustetan dagoeneko ez da eronka aisialdia eskalduntzea, euskarazko aisialdi eskaintza berritu eta beste ikuspegi baterantz bideratzea. Horri buruz mintzatu da asteazkenean izango den hitzaldian.

Eneko Barberena Arrasateko Txatxilipurdiko elkartearen baitan, aisialdian egiten ari den lanaz mintzatu da. Testuinguruak aldaketak eta egitasmo berriak behartu dituztela dio eta ikuspegi berriarekin lan egiten hasia da orain bere ustez eronka.

Zen da Txatxilipurdik euskarazko aisialdian egindako ibilbidea? Zein ekintza burutzen ditu egun?
Txatxilipurdik AED elkartearen baitan hasi zen lantalde gisa 1988an eta ordutik euskarazko aisia hezitzaile eskaintzen aritu da haur eta gaztetxoentzat: udalekuak, ludoteka eta gazte txooken

kudeaketa, tailerrak, gabon parkea... Azken urteotan, gurasoekin ere ari gara lanean transmisioaren alorrean.

Haurrasate egitasmoan lanean ari zarete. Zer da eta zein helburu du?

Beharrak, beti moduan, eragin du gugan aldaketa bat: gure ikuspuntu eta itxarpen irekitzeko beharra. Gure egunerokoa lana hobeto egiteko oharitu ginen aldaketa sakonak behar genituela, guk eta Arrasatek. Hirigintza, harremanak, herri hezitzaile bihurtzea... berba potoaloak dira, baina heldu beharrekoak. Bidelagun onak ditugu zoriez, Huzei eta Bagara,



Udalaren eta Aldundiaren babesarekin.

Euskaraz eskaintzen den aisialdian beste ikuspegi bat bilatu nahi izan du? Behar al du?

Gaur egun eronka ez da aisialdia euskaraz eskaintzea

ala ez. Gipuzkoan ez. Duela 25 urte bazen baina 2013an eta D ereduak nagusi den herrialde batean... Guk uste dugu euskarak zentralitatea behar duela, nola ez, baina aisialdia tresna izan behar dela gure herriak eraldatu eta hobetzeko. Oarsoaldeko

Irrien Lagunak ere horretan ari dira, antzeko terminotan, eta emaitzak hor daude.

Aisialdiak zer eskaintzen du euskararen sustapenean? Eskolak eskaini ezin dion gutzia.

Umeen aisialdia eskalduntzeaz harago joan behar dela diozue. Zer esan nahi duzue horrekin?

Aisialdi hezitzaile defentsatzen dugu guk. Euskalduna izango dena, hori ez dago zalantzan. Baina bada garaia euskalgintza planteatu ditzan ze balore nahi dituen lehentisi. Hau da, euskalgintza feminista izan behar da? Eta herrigintzarekin zein harreman izango ditu? Aisialdian behar ditugun produktuak non eta nola erosi behar ditugu? Hori eta gehiago da, aisialdia harago joan behar dela esatean adierazi nahi duguna.

Lasarte-Orian euskarazko aisialdi eskaintza zabaldu eta aberatsa dago baina beti dago zer ikasia horregatik elkarlanean Kukuka Antzerki eta Dantza eskola, Xumela, Munsteri AEK, Zabaleta-Auzolan eta Ttakun elkarteak "Aisia Familien parte-hartzearekin erakitz" hitzaldia antolatuta dute asteazkenean 18:00etan Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan. Honetara gonbidatu dituzte Eneko Barberena Arrasateko Txatxilipurdik burutzen duen lana azaltzeko eta Oarsoaldeko Irrien Lagunak egitasmoan dauden bi guraso. Hitzaldia irekia da eta herritarrak honetan parte hartzera gonbidatzen dituzte antolatzaileak.

Oarsoaldeko Irrien Lagunak

"Familian gozatu nahi dugu"

Oarsoaldean familientzako aisialdi eskaintza lantzen ari dira Irrien Lagunak egitasmoaren baitan. Hainbat erakunde elkarlanean sustatu dute eta ume, gazte eta gurasoen parte hartzea lantzen du denen artean ekintzak diseinatu eta burutzeko.

Zer da Irrien Lagunak ekimena?

Familientzako aisia hezitzaile, euskaldun, parte hartzaile eta herritarrak eratzeko prozesu bat abiatu duen ekimena da.

2011n, Oarsoaldeko lau herritan abiatu du egitasmoa da. Lau eragile ditu: Oarsoaldeko mankomunitatea eta udalako euskarazko zerbiztuak, Irrien Lagunen Kluba elkarteak, MU-n Huzei-ko Sorgunek ikertegia eta herritarrak. Herritarrengan dago aitzindaritza, bereziki haur eta gaztearengan. Udaleko ordezkariek balibideak jarraitze gain, kide aktibo dira gaitzetelekoekin; Sorgunek-ek egitasmoa edukiz jantzi eta dinamika gidatzen du; eta,

Irrien Lagunen Klubak egitasmoari ume eta gazteok arras ezagutzen duten mundu eta iruditeria erreferentzialaren (kantu, ipuin, antzerki...) atzeki eskaintzen dio.

Non kokatzen da euskaraz?

Ekimenaren erdigunea. Euskararen inguruan bildu nahi ditugu herritarrak eta ospakizun-izaerako gune simboliko publikoak indikatuta nahi dugu. Euskaraz izan dadin egitasmo erakarriari, bizigarri eta irekizale baten giltza, horrek erakarriko duelakoan euskalduna eta baita euskalduna ez dena edota euskarazko munda urrun edo arrotz zaioan hura ere. Gozamenetik beti.

Euskaraz, berez, balio bat da, balio hezitzaile, inklusiboa eta irekia delako; euskarak berak ekar lezakeelako gure ahoz eta gure praktikaz komunitate justuago, irekiago eta parte-hartzaileago bat.

Nola lantzen ari zarete parte hartzea guraso eta umeekin?

Eskualdeko lau herritan parte-hartzaile eratu ditu, bai helduek, eta baita haur eta gazteok ere. Eta aisia eskaintza bat egiteaz gain, haur eta gazteok euren hainbat ekimen proposatu, eztabaidatu, erabaki eta gauzatu dituzte.

Ume eta helduak batera biltzeko batzar bateratuak ere dituzte antolatuta, ume, gazte eta heldu elkarrekin lan egiten ohi izan hasi gara, berdinetik berdineraz, euskarazko proposamen eta iritziei balio eta errespetu bera eskainiz.



Irrien Lagunak Francesco Tonucci psikopedagogo italiarrarekin egindako ekintzaren irudia.

Aisialdiaren esparruak zein tresna ematen ditu?

Aisialdia definituko bagenu, eskola, lana, familia zein gizar-te esparruetan pertsonak dituen derrigorrezko egin-beharretatik kanpo dagoen denbora tarteak da: alegia, bakoitzak nahi duena egiteko erabili dezakeen denbora. Aisiako jarduerak gauzatzeko gozamen eta poza ematen dio norbanakoari. Euskaraz, parte hartzea, auzolana eta balio hezitzaileak gozame-

narekin lotzeko eta bizitzeko aukera eskaintzen digu.

Orain arteko aisialdi ereduak zein izan da?

Orain arte eskaintza umei edo gazteei edo helduei egin zaie. Gurasoak helduen multzora kanbikatu lirateke. Gure ekimenaren eskaintza familiei egiteko beharra ikusi dugu, aisiaz elkarrekin gozatu nahi dugu, guraso, ume eta gazte elkarrekin.